



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2019ko ekainaren 10ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2018-2019ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpen-proposamena, hautaketa-batzordeak aurkeztuta, ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2018ko uztailaren 3ko aginduaren bitartez (2018ko uztailaren 10eko EHAA), 2018-2019ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2018ko uztailaren 3ko Aginduaren III. Eranskinaren 11. Artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2018-2019ko ikasturtean, etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak; II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak; eta III. eranskinean zerrendatzen dira, lehentasun-ordenaren arabera, ordezkoen zerrenda osatzen duten eskaerak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 10a

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA/
LA DIRECTORA DE POLÍTICA Y COORDINACIÓN UNIVERSITARIA**

Miren Artaraz Miñón